

Gure bezeroekin ezinbestekoa da harreman pertsonal bat izatea, azken finean haien haurrak gure erantzunkizuna izango dira, eta hauek ezagutu behar izango ditugu, gure lana ondo egiteko. Beraz, gure aldetik zein gurasoen aldetik beharrezkoa dugu konfiantzazko eremu bat sortzea, haurren onerako zein kontziliazioa bermatu ahal izateko. Harreman hori hurbileko harremana izan behar da, hau da, gure bezeroak jakin behar dute haien haurrak, konfiantzazko leku batean uzten dituztela, haien lasaitasuna bermatu dadin.

Esan bezala, hainbat arrazoiengatik garrantzitsua da konfiantzazko eremu bat sortzea. Ondorengo elementu hauek bermatzea da guretzako garrantzitsuenak:

- Lehenik eta behin, haurraren ongizatea da; gurasoen eta gure arteko harreman sendoak bermatu haurra seguru eta sostengatuta sentitzeko, bai etxean, bai haurtzaindegian. Horrek haien ongizate emozionala eta garapen osasungarria bultzatzen ditu.
- Bigarren, komunikazio eraginkorra sustatzeko, bezeroak ordutegi, programa, haurtzaindegiko politika eta gertaera garrantzitsuei buruzko informazio eguneratua lor dezakete.
- Hirugarren, elkarrekiko laguntza dago, gurasoak seguruago sentituko dira seme-alabak haurtzaindegian uzten dituztenean, bertako giroan konfiantza badute.
- Azkenik, arazoaren ebazpena dago, hau da, konfiantzazko lotura ezartzen denean, errazagoa da haurrarekin zerikusia duen edozein arazo landu eta konpontzea.

Online zerbitzu bat ere eskeinitako dugu. Web-orrialde baten bidez, gure bezeroek egun konkretuetan umeak uzteko, galderaren bat egiteko edota hitzordu bat izateko aukera izango lukete. Gure ustez, oso garrantzitsua da horrelako zerbitzu bat eskaitzea, aurretik esan bezala, hurbiltasun bat sortu nai dugulako bezeroen eta gure artean. Baita, eskuragarritasuna eta komenigarria da. ezzeroak edozein unetan eta edozein tokitatik eskura dezakete informazioa, eta horrek erosotasuna ematen die eta beren galderari erantzutea ahalbidetzen die, haurtzaindegiko langileekin zuzenean komunikatu beharrik gabe.

Gardentasuna lortzen da, ongi mantendutako web orri oso batek profesionaltasuna eta zintzotasuna transmititzen ditu. Gurasoek informazio garrantzitsua berrikus dezakete, eta horrek konfiantza ematen die erakundeari eta eskaintzen dituen zerbitzuen kalitateari. Horrekin batera, zalantzak argitzearen eskuragarritasuna dago. Web orrian ohiko galderen atalak sar daitezke, gurasoek izaten ahal dituzten kontsulta arruntenei erantzuteko. Horrek ohiko galderari erantzuten eta zalantzak argitzen laguntzen du, zuzeneko harremanik gabe.

Bezero leial edo iraunkorrenzat eskaintza berezi bat eskeiniko dugu. Bono batzuk sortzea izango litzateke ideia; azken finean, askotan etorri behar diren umeen gurasoentzat zailtasunak izan ditzakete ordaintzeko orduan. Beraz, bono bat sortzeak erreztasunak emango lituzke, eta haien fideltasuna ziurrenik bermatuko genuke.

Bono hauekin, edozein momentutan etortzeko erreztasuna lortzen dute, hau da, askotan etorri behar badira ospitalera (kontsultak egiteko, edota probak egiteko...), egunean ordaindu baherko dute bakarrik, eta horretarako bono hauek oso baliagarriak dira. Zazpiko bonoak izango dira, hau da bono bat ordaintzeagatik, zazpi aldiz etorri ahalko da haurra eta egunak amaitzen direnean, beste bono bat erosi dezakete.

Modu honetan, bezeroen fideltasuna bermatzen da, erreztasuna dutelako haurrak bertan uzteko. Horri esker, plangintza eraginkorragoa egin daiteke, eta kalitate-estandar konstanteak mantendu. Baita ere, epe luzeko harremana suertatu ahal da, gurasoek hartzaindegian konfiantza dutenean eta zerbitzuekin pozik daudenean. Eta azkenik, lankidetzak eta komunikazioa, bezero leialak erosoago sentitzen dira hartzaindegiko langileekin komunikatzean, eta horrek lankidetzak eta arazoak konpontzea errazten du, halakorik bada.